

ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAREN ARAUTEGIA

12/2008 legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, eguneko Arretako Zerbitzua sartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Euskal Sistemako arretako zerbitzuen Katalogoen lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du udalen zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, hau dio:

5.artikulan: udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008/Legearen 22.artikulan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko.

32. (e).artikulan “laguntzen” definizioa dator: pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarrekoak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.

1.7 Eranskinean, 1.7 fitxan, eguneko arreta-zerbitzuari buruzkoan, halako zerbitzuek dispositibo bat jartzen dute pertsonen eskura, intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaien egunean zehar, arreta-premia espezifikoei lotuta.

REGLAMENTO DEL SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA PARA PERSONAS MAYORES

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales establece el Servicio de atención diurna como parte del catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, determinando, además, que se trata de un servicio de atención primaria (Art.22.1.7) y que su provisión y prestación deberá garantizar desde los servicios sociales municipales.

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales dice igualmente:

En el artículo 5, que los Ayuntamientos serán competentes para la provisión de todos los servicios de atención definidos en el artículo 22 de la Ley 12/2008.

En el artículo 32.e) se define “apoyos” como los recursos formales (servicios y prestaciones) e informales (de la red socio-familiar) que se ponen a disposición de las personas a fin de mejorar su funcionamiento individual, su desarrollo y su calidad de vida, así como promover su participación activa, vida independiente y autonomía en el seno de la comunidad.

En el anexo 1.Ficha 1.7 sobre servicio de atención diurna que este tipo de servicios ponen a disposición de las personas un dispositivo al que acudir durante el día en el que se les ofrece un apoyo de baja intensidad ligado a sus necesidades

específicas de atención.

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da Eibarko udalerriko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Eibarko udalerrian emango da, Udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

3. artikulua. Eguneko Arreta Zerbitzuaren definizioa.

- Arreta-zerbitzua zera da: aldi baterako edo etengabeko arreta-zerbitzu bat, asistentzia- eta prebentzio-izaerakoa, erabiltzaileari etxean egoten laguntzera bideratua, esku-hartze soziedukatibo eta psikosozial bat eskaintzen duena.

- Komunitatean garatzen den zerbitzu bat da, etxebizitzatik gertu dagoen espazio batean

4. Eguneko arreta zerbitzuaren helburuak.

a) Adineko pertsona hauskorrak autonomiari eusten laguntzea (I. mailako mendekotasun-egoeran edo arriskuan daudenak, Mendekotasunaren Balorazioaren baremoan 25 eta 39 arteko puntuazioa lortu dutenak), bai eta beren ohiko ingurunean bizitzen jarraitzen eta sozializatzen laguntzea ere, hala

Artículo 1. Objeto.

El presente reglamento tiene como fin regular el servicio de atención diurna para personas mayores en el municipio de Eibar.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

El servicio que se regula en este reglamento se desarrollará en el término municipal de Eibar dentro del ámbito de las competencias municipales en materia de Servicios Sociales.

Artículo 3 Definición del Servicio de atención para personas mayores.

- El servicio de atención es un servicio de atención temporal o permanente de naturaleza asistencial y preventiva destinado a ayudar a la persona usuaria a permanecer en su domicilio, ofreciéndole un servicio de intervención socioeducativa y psicosocial.

- Es un servicio que se desarrolla en la comunidad, en un espacio próximo a la vivienda.

4. Objetivos del servicio de atención diurna.

a) Contribuir al mantenimiento de la autonomía personas mayores frágiles (en riesgo o en situación de dependencia Grado I, que hayan obtenido una puntuación en el baremo de la valoración de la dependencia (BVD) de entre 25 hasta 39 puntos) y a su permanencia en su entorno habitual y su socialización,

badagokio, isolamendu-egoerak konpentsatuz.

b) Autonomiaren galera prebenitzea, autonomiari eustea eta hura konpentsatzea edo hobetzea, esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko programen bidez.

c) Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua indartzea.

d) Erabiltzaileak komunitate-ingurunean integratzen laguntzea, isolamendu-eta/edo bazterketa-egoerak saihestuz.

e) Bideragarria den guztietan, erabiltzailea ahalik eta denbora luzeenean etxean egon dadin ahalbidetzea, bizikaltate onargarriarekin, ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro batean sartzea atzeratuz edo saihestuz.

5. artikulua. 5. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak.

5.1. Pertsona hartzaileak.

Zerbitzuaren hartzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- 65 urteko pertsonak edo hortik gorakoak, mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun-egoeran daudenak (I. gradua, 25 eta 39 arteko puntuazioa dutenak Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan).
- Zaurgarritasun-egoeran dauden 75 urteko pertsonak edo hortik gorakoak, mendekotasun-

compensando en su caso situaciones de aislamiento.

b) Prevenir el deterioro, mantener y /o compensar la pérdida de autonomía y mejorar la misma a través de los programas de intervención socioeducativa y psicosocial.

c) Fortalecer el sentimiento de seguridad de las personas usuarias.

d) Favorecer la integración de las personas usuarias en su entorno comunitario evitando situaciones de aislamiento y/o exclusión.

e) Posibilitar, siempre que resulte viable, la permanencia de la persona en el domicilio el mayor tiempo posible, con una calidad de vida aceptable, retrasando o evitando el ingreso en un servicio de alojamiento o centro residencial.

Artículo 5. Requisitos de acceso al servicio.

5.1. Personas destinatarias.

Las personas destinatarias del servicio tendrán que reunir los siguientes requisitos:

- Personas de 65 o más años en riesgo o en situación de dependencia (grado I, con una puntuación de entre 25 y 39 en el Baremo de Valoración de la Dependencia).
- Personas mayores sin reconocimiento de dependencia o con puntuaciones inferiores a 25

aitorpenik ez dutenak edo Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan 25 puntu baino gutxiago lortu dutenak.

- 65 urteko pertsonak edo hortik gorakoak, isolamendua, bakardadea, abandonua edo tratu desegokia pairatzeko egoeran edo arriskuan daudenak.

Halaber, zerbitzuaren onuradun izan ahalko dira zerbitzuaren bidez artatuak izan daitezkeen egoeretan dauden pertsona guztiak.

5.2. Administrazio-baldintzak eta premiei dagozkienak.

- Eibarko udalerrian erroldatuta egotea eta bertan bizitzen jarraitzea. Baldintza honetatik salbuetsita egongo dira, teknikarien proposamenez, txandakatze familiarraren egoeran dauden pertsonak.
- Intentsitate txikiko laguntza bat behar izatea zerbitzu-modalitate honen bidez artatzen diren premiak betetzeko.
- Ez ukatzea dagokion tratamendua, baldin eta gaixotasun infekzioso-kutsakorra edota gaixotasun mentala izanez gero.
- Ez izatea zerbitzuaren funtzionamendua edo elkarbizitza normala larriki nahas dezaketen edo pertsonarentzat, beste erabiltzaileentzat edo zerbitzuko profesionalentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokabide-nahasmendurik edo portaerarik.

puntos en el Baremo de Valoración de la Dependencia, de 75 años o más años, en situación de fragilidad.

- Personas de 65 o más años que se encuentran en situación o en riesgo de padecer aislamiento, soledad, abandono, trato inadecuado.

También podrán ser beneficiarias del servicio todas aquellas personas que se encuentren en situaciones susceptibles de ser atendidas a través del servicio.

5.2.-Requisitos administrativos y de necesidad.

- Estar empadronado en el municipio de Eibar y permanecer en el mismo. Podrán exceptuarse de este requisito a la persona en situación de rotación familiar a propuesta técnica.
- Requerir un apoyo de baja intensidad para la cobertura de necesidades que sean atendidas por medio de la modalidad de este servicio.
- No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad infecto-contagiosa y/o enfermedad mental.
- No padecer trastornos de conducta y/o presentar comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras

- Ez izatea osasun-arreta espezializatu edota iraunkor baten premiarik, zerbitzuaren helmenetik edo aukeretatik kanpo.

- No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del servicio.

6. artikulua. Eguneko arreta-zerbitzuaren ezaugarriak.

Eguneko arreta-zerbitzua Eibarko udalerrian emango da, horretarako egokitzen diren ekipamenduetan. Egunero eman ahalko da, astelehenetik ostiralera, edo egun jakin batzuetan, jaiegunetan eta oporretan izan ezik.

Ordutegia izena emanda dauden taldeei eta pertsonari egokituko zaie, baina, ahal dela, goizez izango da, eta zerbitzu osagarriak emanez gero, 10:00etatik 17:00etara. Ordutegi hori malguta da eta premietara egokitu ahal izango da.

Zerbitzuaren ahalmena 8 pertsonakoa izango da gutxienez, eta 15koa gehienez, espazioak ahalbidetzen duenean. Dena den, taldea jende gutxiagorekin ere eratu ahalko da, baina ez sei baino gutxiagorekin.

Zerbitzua Gizartekintza Sailak eskura jartzen dituen lokaletan emango da.

Eibarko Udalak egutegi bat egingo du urtero eta egutegia eta ordutegia aldatzeko eskubidea izango du, betiere zerbitzuaren erabiltzaileei jakinarazita.

Artículo 6. Características del Servicio de atención diurna.

El servicio de atención diurna se prestará en el municipio de Eibar en los equipamientos habilitados para tal fin. Se podrá ofrecer durante todos los días de lunes a viernes, o días alternos excepto festivos y periodos vacacionales.

El horario se adaptará a los grupos y personas que están inscritas, si bien éste será preferentemente de mañana y en el caso de que se presten los servicios complementarios en horario de 10:00 a 17.00 horas. Este horario es orientativo y flexible pudiéndose adaptar a las necesidades.

El servicio tendrá una capacidad de atención de mínima de 8 personas y máxima de 15 cuando el espacio permita el máximo. No obstante podrán configurarse el grupo con un número inferior de personas pero no por debajo de seis.

El servicio se prestará en locales que el Departamento de Servicios Sociales facilite.

El Ayuntamiento de Eibar elaborará un calendario anual y se reserva el derecho a modificar el calendario y el horario,

Zerbitzuaren prestazioak:

- a) Informazioa eta orientazioa
- b) Jarraipenaren balorazioa
- c) Esparru sozioedukatibo eta psikosozialaren esku-hartzea.
 - Estimulaziorako eta errehabilitaziorako esku-hartzea: gaitasunak garatzea eguneroko jardueren eta ariketa errazen bidez.
 - Esku-hartze sozioedukatiboa: heziketa-alorreko jarduerak, kulturalak, aisialdikoak.
 - Laguntza soziala

Beharrezkotzat jotzen denean, eta zerbitzu hori eskaini ahal bada, mantentze eta higiene pertsonala prestazio osagarriak izango dira. Azken prestazio horretan, Eibarko Udalak baloratuko du ea etxeko laguntza-zerbitzua edo eguneko arreta-zerbitzua ematea komeni den.

Behin zerbitzuan sartuta, pertsona bakoitzaren balorazio psikofisiko eta sozial bat egingo da. Balorazio horren emaitzaren arabera ezarriko da Banakako Esku-hartze Plana, non zerbitzuan sartzen den pertsona bakoitzarentzako helburuak eta proposamenak islatuko diren. Plan hori pertsonari berari edo haren erreferentziazko pertsonari aurkeztuko zaio; planaren helburua da pertsonaren bizi-proiektua garatzen lagunduko duten aukerak eta laguntzak eskaintzea, gogobetetzea eta ongizatea sustatzeko.

siempre que se lo comunique a las personas usuarias del servicio.

Prestaciones del servicio:

- a) Información y orientación
- b) Valoración de seguimiento
- c) Intervención del ámbito socio-educativo y psicosocial.
 - Intervención para la estimulación y rehabilitación: desarrollo de capacidades a través de las actividades cotidianas y ejercicios simples.
 - Intervención educativa: actividades educativas, culturales, de ocio.
 - Acompañamiento social

Cuando se estime necesario y dicho servicio se pueda ofrecer, serán prestaciones complementarias la manutención y la higiene personal. En esta última prestación, el Ayuntamiento de Eibar valorará la opción de que se preste a través del servicio de ayuda a domicilio o en el servicio de atención diurna.

Una vez incorporados al servicio, se realizará una valoración psicofísica y social de cada persona. De acuerdo con los resultados de dicha valoración se establece el Plan de Intervención Individualizado de Intervención (PAI) donde quedaran reflejados los objetivos y propuestas por cada persona que acceda al servicio. Este plan será presentado a la propia persona y/o persona de referencia de la misma, y su finalidad es facilitar los apoyos y oportunidades que contribuyan al desarrollo de su proyecto de vida, promoviendo su satisfacción y bienestar.

7. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoez gain, eguneko arreta zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- Zerbitzua EAeko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzea.
- Zerbitzuaren baldintzetan izandako edozein aldaketaren berri aldeztatik jasotzea.
- Errespetu osoz, zuzentasunez eta adeitasunez artatuak izatea.
- Beren premiak eta, ahal den guztietan, bere lehentasunak errespetatuak izatea.
- Beren pribatutasuna eta dagokien informazioaren konfidentziasuna errespetatuak izatea.
- Erabiltzaileen lehentasunen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan artatuak izatea.
- Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartzea.

8. Artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Artículo 7. Derecho de las personas usuarias.

Además de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales las personas usuarias del servicio de atención diurna tendrán derecho a:

- Recibir el servicio en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Ser informadas previamente de cualquier modificación en las condiciones del servicio.
- Ser atendidas con el máximo respeto, con corrección y comprensión.
- Ser tratadas con respeto pleno de sus necesidades, y siempre que resulta posible de sus preferencias.
- Ser tratadas con respeto de su privacidad y confidencialidad de la información que les concierne.
- Ser atendidas, en función de su propia preferencia, en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Participar en la evaluación del servicio.

Artículo 8. Obligaciones de las personas

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaileek betebeharrak izango dituzte:

- Zerbitzua ematen duten profesionalak behar bezala eta errespetuz tratatzea eta laguntzea.

- Udal-teknikariei, zerbitzua eman bitartean, sortzen diren gaixotasun infekzioso-kutsakorren berri ematea.

- Osasun-erakundeetara joatea, osasun-egoerak hala eskatzen badu.

- Udal teknikariei banku-erakundea eta kontu korrontearen zenbakia ematea, zerbitzuaren prezio publikoa ordaintzeko.

- Dagokion zerbitzuaren kostua ordaintzea.

- Erregularitasunez joatea zerbitzuko jardueretara, eta, ezin bada joan, zerbitzuko langileei jakinaraztea ez dela saiora edo saioetara joango, eta, ahal bada, noiz arte ez den joango jakinaraztea.

- Zerbitzuan ezarritako oporraldietatik kanpo, oporrak hartzeagatik absentzia-aldiak ez izatea bi astetik gorakoak edo hamabost egun zatikagarritik gorakoak (bi astetan zatikagarriak).

- Ospitaleratzeagatik absentzia-aldiak ez

usuarias.

Además de lo establecido en el artículo 10 de la Ley 12/2008, de 5 diciembre de Servicios Sociales las personas usuarias del servicio de atención diurna tendrán la obligación de:

- Facilitar, colaborar y tratar con corrección y respeto a las y los profesionales intervinientes en la prestación del servicio.

- Informar al personal técnico municipal de aquellas enfermedades infecto-contagiosas que sobrevinieran durante la prestación del servicio.

- Asistir de manera continuada a instituciones sanitarias si el estado de salud así lo requiere.

- Facilitar al personal técnico municipal la entidad bancaria y el número de cuenta corriente por la que se realizará el pago del precio público del servicio.

- Abonar la aportación económica al coste del servicio que le corresponda.

- Asistir con regularidad a las actividades del servicio y, en caso de ausencia comunicar al personal del servicio que no se acudirá a la sesión o sesiones, y si es posible comunicar el período en el que se prolongará la ausencia.

- Que los períodos de ausencia por vacaciones fuera de los períodos vacacionales establecidos en el servicio, no superen las dos semanas o quince días fraccionables hasta en dos semanas.

- Que los períodos de ausencia por

izatea 3 hilabetetik gorakoak.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo azkentzeko prozedura bat hasiko da, araudi honetan araututako prozeduraren arabera.

9. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.

Eguneko arreta-zerbitzuaren eskatzaile-zerrenda, zerbitzua esleitzeko lehentasuna antolatzen duen tresna da, I. eranskinean ezarritako sarbide-baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera.

10. Artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaera.

Zerbitzuaren eskatzaile-zerrenda, zerbitzua esleitzeko lehentasuna antolatzen duen tresna da, I. eranskinean ezarritako sarbide-baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera.

Araudi honetan araututako eguneko arreta-zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, interesdunak edo, hala badagokio, bizikidetz-unitateko kide guztiek eskatu beharko dute, inprimaki normalizatuan, organo eskudunari zuzenduta, eskatzaileak sinatuta eta Eibarko Udalaren erregistro ofizialean aurkeztuta.

Prozesuaren edozein unetan, interesdunak

hospitalización no superen los 3 meses.

El incumplimiento de alguna de estas obligaciones dará lugar al inicio de un procedimiento de suspensión o extinción del servicio de conformidad con el procedimiento regulado en este reglamento.

Artículo 9. Lista de demandantes.

La lista de demandantes del servicio de atención diurna es el instrumento a través del que se ordena la prioridad en la asignación del servicio según la puntuación obtenida aplicando el baremo de acceso establecido en el anexo I

Artículo 10. Solicitud de acceso a la lista de demandantes del servicio.

La lista de demandantes del servicio es el instrumento a través del que se ordena la prioridad en la asignación del servicio, según la puntuación obtenida aplicando el baremo de acceso establecido en el anexo I.

El acceso a la lista de demandantes del servicio de atención diurna regulado en el presente reglamento se realizará previa petición de la persona interesada, o en su caso de todos los miembros de la unidad convivencial, en impreso normalizado, dirigido al órgano competente, firmado por la persona solicitante y presentado en el registro oficial del Ayuntamiento de Eibar.

En cualquier momento del proceso la

atzera egin dezake bere eskaeran; kasu horretan, idatziz egin beharko du. Horrek espedientea artxibatzea ekarriko du.

Halaber, gizarte-langileak txostena egin ahal izango du espedientea artxibatzeko, eskatzaileak edo haren ordezkariak ahoz uko egin duela adierazi badu.

11. Artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

NANaren fotokopia, edo haren baliokidea den edozein identifikazio-agiri.

Mendekotasun-egoeraren balorazioa, baldin eta balorazioa beste autonomia-erkidego batean egin bada eta espedientea oraindik ez zaionean Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri.

Txosten medikoa, Gizarte Zerbitzuen iritziz beharrezkoa denean.

Eskatzailearen egoera ekonomikoari buruzko datuak, pentsio edota prestazioetatik eratorriak.

Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea edo akastuna bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 10 egun balioduneko epean beharrezko dokumentazioa aurkez dezan edo antzemandako akatsak zuzen ditzan, eta jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

Eskatzaileak baimena emango dio

persona interesada puede desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

Así mismo el/la trabajador/a social podrá emitir informe con el fin de proceder al archivo del expediente, cuando haya renuncia expresada verbalmente por la persona solicitante o su representante.

Artículo 11. Documentación que se deberá adjuntar con la solicitud.

Fotocopia del DNI, o cualquier documento de identificación equivalente.

Valoración de la dependencia si la valoración hubiera sido realizada en otra comunidad autónoma y todavía no estuviera traslado el expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Informe médico cuando a juicio de los Servicios Sociales sea necesario.

Datos de la situación económica de la persona solicitante proveniente de pensiones y/o prestaciones.

Si la documentación presentada junto con la solicitud fuera incompleta o defectuosa, se le requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de 10 días hábiles aporte la documentación necesaria o subsane los defectos observados, haciéndole saber que, en caso contrario, se le tendrá por desistida de su solicitud.

La persona solicitante autorizará al

Udalari berari dagozkion datuak egiaztatzekeo edo biltzeko beharrezkoak diren gestioak egiteko. Datu horiek araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeraz mugatuko dira.

Datuak faltsutzeak eta ezkututzeak zerbitzuaren eskatzaile-izaera galtzea ekarriko du, gerta litezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

12. Artikulua. Informazioa eta izapidetzea.

Informazioa eta motibazioa

- Zerbitzuaren oinarriko informazioa, (bereziki betekizunei buruzkoa), baldintzak, ezaugarriak eta betebeharrak ematea.

- Pertsonak zerbitzuan parte hartzeak izan ditzakeen onurak aurreikustea.

- Beldurrak, erresistentziak eta uste faltsuak desmuntatzen saiatzea.

- Parte-hartzea zailtzen duten gaiei irtenbideak bilatzea (etxeko lanak antolatzekeo laguntza behar izatea, joan-etorriak, etab.)

- Proba egitera gonbidatzea, inolako konpromisorik gabe.

Izapidetzea.

Ayuntamiento de Eibar para realizar las gestiones oportunas a fin de verificar o recabar datos que le conciernen. Dichos datos deberán limitarse exclusivamente a la comprobación del cumplimiento de los requisitos establecidos en el presente reglamento.

La falsedad y ocultación de datos dará lugar a la pérdida de la condición de solicitante del servicio, sin perjuicio de las responsabilidades en las que se pudiera incurrir.

Artículo 12. Información y tramitación.

Información y motivación

- Facilitar la información inicial básica (especialmente la referida a los requisitos), condiciones, características y obligaciones del servicio.

- Anticipar los beneficios que se estima que puede tener la participación de la persona en el servicio.

- Intentar desmontar miedos, resistencias y falsas creencias que se pueda manifestar.

- Buscar soluciones a cuestiones que dificulten la participación (necesidad de ayuda a para la organización de las tareas domésticas, desplazamientos..., etc.)

- Invitar siempre a hacer una prueba sin ningún compromiso.

Tramitación.

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa eta gizarte-txosten/proposamena Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztapenen arabera egingo dira.

a) Beharren ebaluazioa.

- Eskaeraren balorazioa eta proposamena oinarritzeko Gizarte-Zerbitzuko Gizarte-Laneko teknikariek egingo dute.

- Teknikariek aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta elkarrizketak egingo dituzte, bai eta egoera bakoitzaren beharrak baloratzeko egin beharreko izapideak ere.

b) Txosten-proposamena.

Gizarte-laneko zerbitzu teknikoek nahitaezko gizarte-txosten bat egingo dute, honako hauek zehaztuko dituen:

- Zerbitzuan sartzeko eta eskabideak aurkezteko baldintzak betetzen direla.

- Hala badagokio, baldintzak salbuesteko proposamen arrazoitua.

- Eskatzailearen inguruabar pertsonalak, familiarrak eta sozialak.

- Eman beharreko zerbitzuen proposamena.

- Hala badagokio, salbuespeneko zerbitzuen proposamen arrazoitua.

- Eskatzaileak ordaindu beharreko prezioa.

- Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua

La evaluación de la necesidades de las personas usuarias y el informe social-propuesta se realizarán atendiendo a las especificaciones recogidas en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales.

a) Evaluación de las necesidades.

- La valoración y propuesta de la solicitud serán realizadas por el personal técnico en Trabajo Social del Servicio Social de base.

- El personal técnico analizará la documentación presentada y realizará entrevista y cuantas gestiones procederán para valorar las necesidades de cada situación.

b) Informe propuesta.

Los servicios técnicos de trabajo social elaborarán un informe social preceptivo que determinará:

- El cumplimiento de los requisitos de acceso al servicio y de presentación de la solicitud.

- En su caso, propuesta motivada de excepcionalidad de requisitos.

- Circunstancias personales, familiares y sociales de la persona solicitante.

-Propuesta de los servicios a prestar.

-En su caso, propuesta motivada de los servicio excepcionales.

-Precio a abonar del servicio por la persona solicitante.

- En su caso propuesta motivada de denegación del servicio.

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, saileko arduradun teknikoek egingo dute proposamena, ebazpen arrazoituarekin, eta udal-organo eskudunari helaraziko diote, zeinek eskatutako zerbitzuan sartzeko eskaera baietsi edo ezetsiko duen.

Ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da, eskaera udal-erregistroren batean sartzen denetik zenbatzen hasita.

Epe hori eten egingo da eskabideak zuzendu nahi direnean, jakinarazpena egiten denetik betetzen den arte, edo, bestela, emandako epea igarotzen den arte, edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahitaezko txostena eskatu behar denean eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruz, bai eta Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere. Administrazioen administrari erkidea

